



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

65. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Martxo



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Mugaz bestaldeko langileek diskriminazio fiskalik ez dutela jasaten bermatuko du Batzordeak

Europako Batzordeak iragarri du estatu-kideen xedapen fiskalak aztertuko dituela mugaz bestaldeko langileek diskriminaziorik ez dutela jasaten bermatzeko.

Langileen mugikortasuna da Europan hazkuntza eta enplegua areagotzeko potentzial garrantzitsuenetako bat; hala ere, Batzordearen iritziz, oztopo fiskalak dira herritarrentzako disuasio-elementu handienak beste estatu-kide batean lana bilatzeko orduan.

Ekimen espezifiko baten bidez, Batzordea 2012an zuzeneko zerga nazionalak sakon aztertzen hasi da, zerga horiek estatu-kide batean bizi eta bestean lan egiten duten langileentzako desabantaila bidegabeak sortzen dituzten edo ez jakiteko. Diskriminazio edo arau-hausteren bat ikusiz gero, Batzordeak iragarri du agintari nazionalak eskatuko diela beharrezko aldaketak egiteko. Arazoek konpondu gabe jarraitzen badute, Batzordeak arau-hausteei dagozkion prozedurak jarriko ditu abian dagoen estatu-kidearen aurka.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/commission_2010-2014/semeta/index_en.htm

> *Ex ante* ebaluazioak zeregin garrantzitsuagoa izango du 2014-2020 programazio-aldi berrian

Europako Batzordeak kohesiorako politikari eman nahi dion ikuspegi berriak garrantzi handiagoa emango die emaitzei. Ikuspegi horren harira, agerian gelditu da 2014-2020 programazio-aldian *ex ante* ebaluazioak izango duten zeregina indartzeko beharra.

Orientazio-agiri baten bidez, Europako Batzordeak garrantzi handiagoa ematen die ondo diseinatuta dauden programei eta/edo jarduerari. Esku-hartzeko logika argi adierazita izan behar dute eta Europa 2020 Estrategiari ekarpena egiten diotela frogatu behar dute.

Orientazio-jarraibide horiek EGEFek, EGIFek eta Kohesiorako Funtzak finantzaturako programei aplikatuko zaizkie.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/information/evaluations/guidance_en.cfm#2



> *iSare*, energia sare adimendun bat izateko Gipuzkoako apustu ausarta

Estrategia Empresarial aldizkarian (2012ko apirilak 1-15, 423. zbk.) argitaratutako artikuluan, ekimena Gipuzkoan energia esperimentaleko sare adimenduna diseinatzeko eta martxan jartzeko **iSare** proiektua ezagutzera ematen da. Ekimen honek Europako FEDER 2007-2013 programaren babesa du.

iSARE Gipuzkoan energia esperimentaleko sare adimenduna (smart grid, ingelesez) diseinatzeko eta martxan jartzeko proiektua da. Gipuzkoak prototipo moduan, produktu eta ekipo berriak ebaluatzeko plataforma gisa balioko du, lurraldeko enpresek euren sorkuntza, karga, biltegitatze eta energia garbi eta berriztagarriak banatzeko sistemak balioztatu ditzaten.

Informazio gehiago:

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2012-04-02_EE_159_iSare.pdf



KOHESIO-POLITIKA

> Zabalik da *Europako Herritarren Ekimenak* aurkezteko epea

Apirilaren 1ean hasi zen Europako Herritarren Ekimenak aurkezteko epea. Batzordearen tresna berri bat da eta horren bidez, Europar Batasuneko herritarrei jarduera zehatzak egiteko proposamenak aurkeztu eta Europa eraikitzen parte hartzeko aukera eskaintzen zaie.

Parte-hartzeko mekanismo berri hau Lisboako Itunaren harira sortu zen eta helburua herritarrei nazioz gaindiko instantzia batean, kasu honetan Europako Batzordean, zuzenean parte hartzeko aukera eskaintzeko lehen aukera eskaintzea da.

Europako Herritarren Ekimenak aurkeztuta, herritarrek aukera dute Europar Batasuneko erakundeei haien eskumenekoak diren gaietan legezko eskaera formalak egiteko. Ekimenen eskaerak EBko gutxienez zazpi herritarrek osatutako Batzorde batek egin behar ditu. Herritar horiek EBko gutxienez zazpi estatu-kidetakoak izan behar dute. Ekimena erregistratu eta baliozkoa izan dadin eta Europako Batzordeak azter dezan, milioi bat sinadura bildu behar dira Batasuneko gutxienez zazpi estatu-kidetan. Herrialde bakoitzean gutxieneko kopuru bat dago ezarrita herritar kopuruaren arabera.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/citizens-initiative>

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2011:065:0001:0022:EN:PDF>



> Europak kohesio-politikaren aldeko apustua egin du, garapen iraunkorraren sustatzailea delakoan

Europako Ingurumen Politikarako Institutuak azterlan bat egin zuen Europako Batzordearen babesarekin eta azterlan horren arabera, Europar Batasuneko kohesio-politikak behar adinako potentziala du Europa 2020 Estrategia ezartzeko funtsezko tresna izateko eta EBn ekonomia, ingurumen eta gizarte arloko mota askotako helburuak lortzeko.

Zehatz esanda, azterlanak aztertzen du kohesio-politikak nola lagun dezakeen ekonomia berderanzko bidea egiten eta 2013tik aplikatuko den kohesio-politikaren testuingurua garatzen. Horretarako, 2007-2013rako kohesio-politikaren inbertsioek ingurumenean izandako eraginak eta garapen iraunkorrari buruzko hausnarketak estrategien, politiken eta programazioen plangintzan, gauzatzean eta jarraipenean nola txertatu diren ebaluatu ditu azterlanak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/sustainable_development/sd_final_report.pdf

> Europako Parlamentuak Gipuzkoa enpresetan langileen parte-hartzea sustatzeko egiten ari den lana nabarmendu du

Martxoaren 22an, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Batzordearen presidente den Pervenche Berès andreak gonbidatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak *“Langileen finantza eta enpresa parte-hartzerako europar politika berri bat”* jardunaldian parte hartu du Europako Parlamentuan.

Jardunaldi hau Europako Ekonomia eta Giza Batzordeak esparru honetan berriki egindako europar ekimen batentzako irizpenari erantzuna da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza eta Ezagutzaren Sustrapenerako Zuzendari Nagusia den Oscar Usetxi-k, foru ordezkari izan da. Berarekin, delegazioa foru teknikariak, UPV/EHU eta Mondragon Uniobertsitateko eta ASLE-ko ordezkariak osatu dute.

Jardunaldian, Europako Parlamentuak Gipuzkoak enpresetan langileen parte-hartzearen alde egiten dituen ekimenak nabarmendu ditu; zehazki: jardunaldiak, ikerketak, diru-laguntzak.



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Europak arau berriak proposatu ditu lekuz aldatutako langileak hobeto babesteko

Europako Batzardeak proposamen bat aurkeztu du Europar Batasunaren barruko lekuz aldatutako langileei eragiten dien eta indarrean diren arauen jarraipena eta haiek betetzea sustatzeko Direktiba berri bat egiteko.

Direktiba berri horrekin, Batzardeak arau zorrotzagoak ezarri nahi ditu tokiz aldatutako langileei eta horrelako langileak dituzten enpresei informazioa emateari buruz. Horrez gain, arau argiak ezarri nahi ditu agintarien arteko lankidetzari buruz.

Etorkizuneko Direktibak lekuz aldatzeko kontzeptuaren ezarpena eta jarraipena hobetzeko elementuak eskaini beharko ditu eta lekuz aldatutako langileen eskubideen babesa eta defentsa areagotu eta hobetu egin beharko ditu.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/BlobServlet?docId=7479&langId=en>

> Eurobarometroak adierazi du Europako enpresa txikiek eta ertainek ekonomia berderanzko urratsak eman dituztela

Eurobarometroaren azken inkesta Europako enpresa txikiek eta ertainek baliabide eta merkatu berdeen eraginkortasunean duten zereginari buruzkoa da. Inkesta horren arabera, EBko enpresa txikien eta ertainen % 37k gutxienez langile berde bat du lanaldi osoan edo partzialean eta ehuneko hori enpresa handiagoa baino askoz handiagoa da, horiena % 3koa baita.

Produktu edo zerbitzu berdeak saltzen dituzten enpresa txikien edo ertainen % 61 aktiboa da merkatu berdeetan hiru urtean baino gehiagoan. Ameriketako Estatu Batuetan ehuneko hori % 52koa da. Produktu eta zerbitzu berde gehien saltzen dituzten Europar Batasuneko sektoreak elikagaiena eta edariena eta makinena eta ekipamendu-ondasunenak dira.

Inkestaren emaitzek erakusten dute enpresa txikien eta ertainen laurdenak baino gutxiagok ateratzen diola probetxua produktu eta zerbitzu berdeen merkatu bakarrari. Europako enpresa txikien eta ertainen % 20k uste du errazagoa litzatekeela inbertsio berdeak egitea mugaz bestaldeko administrazio-prozedurak eta prozedura juridikoak hain konplexuak ez balira.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/12/316&format=HTML&aged=0&language=es&guiLanguage=en>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Enpresa txiki eta ertainen mesederako finantza-tresnak, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak finantzaketan lagunduta

Europako Kontuen Auzitegiak eginiko txostena. Finantza-tresnen araudi-esparrua Europako enpresa txikien eta ertainen mesedetan hobetzeko Europako Batzordeari eginiko gomendioak biltzen ditu txostenak.

Europako Kontuen Auzitegiak ondorioztatu du, besteak beste, Batzordeak neurri zuzentzaile egokiak hartzen dituela gabeziak detektatzen dituenean, baina aplikazio-prozesua motelegia dela. Era berean, Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren gastuak enpresa txikientzako eta ertainentzako finantza-tresnetan duen eraginkortasuna eskatu egin da finantza-tresnak arautzeko erabiltzen den araudi-esparrua desegokia delako.

Informazio gehiago:

<http://eca.europa.eu/portal/pls/portal/docs/1/14090743.PDF>

> Administrazio Publikoen gastu publikoa, azpisektoreka (Eurostat)

Eurostat Europako estatistika-bulegoaren azken txosten estatistikoaren arabera, Europako Administrazio Publikoek 2010ean guztira eginiko gastua BPGren % 50,6koa izan da.

Estatuetako gobernuen gastua administrazio publikoen gastu osoaren % 38,5ekoa izan zen eta BPG osoaren % 18,8koa. Erkidegoetako eta probintzietako gobernuei gastu osoaren % 5,7 dagokie eta BPGren % 4,0, eta tokiko gobernuei, berriz, gastuaren % 24,3 eta BPGren % 11,9. Gastuaren gainerako zatia Gizarte Segurantzaren gastuei dagokie.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-12-016/EN/KS-SF-12-016-EN.PDF



> Liburu Berdea: itzalpeko banku-sistema

Finantza Egonkortasunaren Kontseiluak "itzalpeko banku-sistema" esaten dio banku-sistema tradizionaletik kanpo dauden erakundeek eta jarduerak osatutako kreditu-bitartekaritzen sistemari. Definizio horren barruan sartzen dira, beraz, ohiko banku-sistematik kanpo aritzen diren erakundeak eta bankuen arlokoak ez diren erakundeen finantzaketa-iturri garrantzitsuak diren jarduerak (titulazioak, balore-maileguak eta berrerosketarako konpromisoa duten eragiketak).

Europako Batzordeak eginiko Liburu Berde honen helburua itzalpeko bankuen jarduera eta erakunde horiek dakartzaten arazoei buruzko eztabaida globalari modu aktiboan erantzutea eta ekarpena egitea da.

Agiriak une honetako egoeraren balantzea egin eta jarduera horiei buruzko hausnarketak aurkeztu ditu, alderdi interesatuen kontsulta zabala egite aldera.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/internal_market/bank/docs/shadow/green-paper_es.pdf